ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko azaroak 20 · 1417 zenbakia



A25

KALEAK HARTZEKO
HAMAIKA ARRAZOI

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

ETORRI. ESERI.
AURKITU ZURE
SOFA



AZPEITIA • Arretxe 9
EIBAR • Arragueta 27
EIBAR • Arragueta 20

www.urrategiinteriorismo.com

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA
Fermin Calbeton zn- 3 ezk. Eibar

GASTESI
Hortz-Klinika
Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / FADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental
M. OROZCO VENTURA
Odontologian Lizentziatua
Unzaga plaza 5, 4° I, Eibar
Tel. 943 70 23 85

arat.
ZURE IRRIBARRE ONENA
Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com
arat_klinika

IRAZABAL
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Blas Etxebarria, 3
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
San Agustin Kalea, 4 [Eibar]
943 537 076 · 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1 ask. 943-782866

Odontologia Biologikoa
Miren Albistegi Sojo
Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental
T: 943 70 00 82
Bista Eder n.° 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

SONRISALUD
Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak
Toribio Etxebarria, 23 behea, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas
GINECOLOGÍA
EIBAR
- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D
Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 04 42

masajeak eta tratamenduak
FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA
1089 kolegiatu zkia.
I. Ojanguren, 2 678 746 617

Julian Etxeberria, 7
688717529
muina
Zoru Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Talde sakoak
Irune Alberdi Sarobe

Jarrai iezaguzu!



Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Horren harira, herriko zein eskualdeko eragileek hainbat ekintza sortu dituzte eta horren berri eman dugu. Gainera, herritarren ahotsa ere jaso dugu sare sozialetan.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

www.etakitto.eus

eta kitto! euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA
Naiara Esnaola
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINU ARLOA
Irune Jaio
JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Naia Aizpurua
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabideak

Eskutitzak

Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratwzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeko eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak

Euskara taldeei gutun irekia: Euskararen Eguna ospakizunetik harago

Zalantzarik ez dago gure hizkuntza eta, beraz, euskaldunon komunitatea ataka estuan dagoela –Iñaki Iurrebaso eta Garikoitz Goikoetxeak idatzi duten *Esnatu ala hil* ezinbesteko lanean dago bikain laburbildua–. Horren aurrean, euskalgintzako eragile nagusiak biltzen dituen Kontseiluak denon artean Pizkunde berri bat abiatzeko deia egin zuen iazko urte amaieran, baita lehen harria bota ere. Ordutik, urtebete pasa da eta bai, gure hizkuntzaren aldeko borrokak zeresan handia eman du, bagoaz pixkana ahalduntzen, erasoak eta erasotzaileak identifikatzen; baina oldarraldi euskarafoboak etengabea izaten jarraitzen du, Hego zein Ipar Euskal Herrian.

Bi aste barru Euskararen Eguna iritsiko zaigu. Gure ustez, baina, euskararen eta euskaldunon aurkako erasoari aurre egingo dion Pizkunde indartsu bat sortu nahi badugu, Euskararen Eguna berrezaugarritzea eta edukiz betetzea ezinbestekoa dugu. Nahitaez behar du Martxoaren 8 egunari mugimendu feministak eman dion gisako garapena. Abenduaren 3ak ospakizun huts bat izatetik, ospakizunaz gain, zapalkuntzaren kontzientziak pizteko eta horri aurre egiteko borrokarako eguna izan behar du. Denok euskahalduntzeko, beharra badugu eta. Egun deserosoa izan behar litzateke erdararen pribilegiotik zapaltzen gaituzten horientzat, euskararentzat hizkuntza politika kamutsak planteatzen ari diren agintarientzat edo gure eskubideak bermatu gabe egun hori beren aurpegia zuritzeko erabiltzen dutenentzat.

Behin Batean euskaltzaleen elkartea (ARGIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PUTZ. ➜ Ahotik indarrez botatzen den airea. Gaztelerazko ‘soplido’. “Gure bizixa putza da, surpian Jaunak putz egin eta biztu giñuzelako”.
Airezko pelota, baloia, globoa. “Erregiak putza ekarri detse gure mutil txikixari”.
PUTZ EGIN. ➜ Ahotik airea indarrez bota. Gaztelerazko ‘soplar’. “Putz egittiarren pezeta bi?. -Ez jauna, putz egitten jakitziarren”.

1967



Eibarko Musika Banda Untzagan

Urte horretan Jacinto Zuluaga *Txokolo* zen bandaren zuzendaria, aurretik kargu horretan aritutako Agustin anaiaren lekukoa hartuta. Santa Zezilia (azaroaren 22a) ospatzeko, orduan ere ohikoak ziren gaueko serenata eta kontzertua.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA

Farmaziak

BARIXAKUA 20
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

ZAPATUA 21
EGUNEZ | Morgado (Isasi, 31)

DOMEKA 22
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 23
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

MARTITZENA 24
EGUNEZ | Barandela (Ziriako Agirre,4)

EGUAZTENA 25
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 11)

EGUENA 26
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

BARIXAKUA 27
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola,18)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Dolores Barruetabeña Ostolaza.** 91 urte. 2026-11-11.
- **Dominica Arrillaga Arrillaga.** 95 urte. 2026-11-11.
- **Andres Carretero Garrido.** 93 urte. 2026-11-11.
- **Marijo Lopez Cascos.** 55 urte. 2026-11-12.
- **Mª Angeles Illana Pajuelo.** 73 urte. 2026-11-12.
- **Antonio Hortas Gomez.** 90 urte. 2026-11-13.
- **Pepita Alberdi Arakistain.** 100 urte. 2026-11-13.
- **Mª Carmen Ucin Erquicia.** 77 urte. 2026-11-14.
- **Jose Chinchilla Valero.** 87 urte. 2026-11-15.
- **Clara Bollar Bilbao.** 91 urte. 2026-11-15.



Gure herriko kaleetan dagoen zaborra garbitzera irtengo dira domeka goizean, eta jendeaentzat mezuak lagako dituzte, jokabide desegokien inguruan pentsarazteko.

Hondakinen prebentzioari lotuta antolatu dituzten jarduerak gaur hasiko dira

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin bat egingo du Eibarrek aurten ere. Hamar egunez (azaroaren 20tik 29ra), hondakinen sorrera murriztea, produktuak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzeko hainbat jarduera egingo dira herrian, *Keinu txikiak, aldaketa handiak* lelopean.

SILBIA HERNANDEZ

Egitarauak informazio-gunea, haurrentzako tailerrak, auzoetako garbiketa-ekintza eta hondakinak pilatzen diren guneak identifikatzeko mapa kolektiboa hartzen ditu barne, eta gaur (azaroak 20, barixakua) hasiko da, Untzaga plazan. 16:30etik 19:00etara, hondakinen kudeaketari eta birziklapenari buruzko informazio-gunea jarriko dute, herritarrek hondakinak behar bezala bereizteari buruzko zalantzak argitzeko. Ordu berean hasiko dira *Orain ez da zaborra!* tailerrak, 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Berrerabilera sortzailearen bidez, baztertutako materialei beste erabilera bat ematen ikasiko dute. Bost urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute.

Kaleetan hondakinak pilatzen diren tokiak identifikatu eta puntu beltzen mapa osatzeko laguntza eskatu diete herritarrei

Auzoetako garbiketa-ekintza

Azaroaren 22an, igandean, *Auzoetako detektibeak: Let's Clean Up Eibar!* ekimena egingo dute. Jarduera 10:30ean abiatuko da Untzagatik, eta bi ordu eta erdiko iraupena izango du. Herrian zeharreko ibilbidean, parte-hartzaileek lekuz kanpo dauden hondakinak seinaleztatuko dituzte, eta horrelako jokabideen inguruko mezuak jarriko dituzte ikusgai, herritarren artean hausnarketa sustatzeko.

Puntu beltzen mapa kolektiboa

Azaroaren 20tik 29ra, Eibarko kaleetan hondakinak pilatzen diren guneak identifikatzeko mapa kolektiboa osatuko dute. Udalaren webgunean egongo den formulario digitalaren bidez, kaleetan aurkitutako gorabeherak jakinarazi ahal izango dituzte herritarrek. Bestalde, herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleei zuzendutako tailer bat ere eskainiko dute. Saio praktikoen bidez, hondakinen prebentzioa eta birziklapena landuko dituzte, ikasleak sortzen duten hondakin kopuruaz jabetu eta hondakinak behar bezala bereizten ikas dezaten.

Europa mailako kanpaina Ihobek koordinatzen du Euskadin. Eibarko egitaraua Eibarko Udalak, Debabarreneko Mankomunitateak, Ihobek eta Eusko Jaurlaritzak sustatu dute.



1947an jaiotako eibartarrek ederki ospatu dute beraien kinto-jaia

S.H. 1947an Eibarren jaiotakoek hitzordu berezia izan zuten aurreko astean, beraien kinto-jaian. Kasino tabernan bazkari eder batez gozatu eta gero, mahaiaren bueltan, lagunarteko solasaldiak, oroitzapenak, anekdotak eta barre algarak ez ziren falta izan.

Euskal Kantu Poteoa antolatu du Gure Eskuk azaroaren 28rako

S.H. Azaroko azken asteburuan sanandresak ospatzeko ekitaldi ugari egingo dira, eta Gure Eskuk ere jaiarekin bat egingo du: zapatuan (azaroak 28) 12:00etan abiatuko dira Kasinotik, euskal kantuak abesteko, eta animatzen diren guztiak ondo hartuko dituzte.



Itxoitera eseri, eta denborarik ez egunkaria zabaltze...

HEMEN DA TOPO BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info topo.eus
euskotren
etsy euskal trenbide sarea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE



Bihar zabalduko dute San Agustin kalea

S.H. Astelehenaz geroztik, San Agustin kalea itxita dago, bertako lurra konpontzeko beharren eraginez. Udalak astearen hasieran aurreikusi zuenez, bihar (zapatua, azaroak 21) zabalduko dute berriz ere kalea trafikoarentzat, 15:00etarako.Lanak amaitu bitartean, Zuloagatarren kalea zabalik egongo dela jakinarazi dute.



Horma-irudi artistiko bat margotuko dute Arragueta kaleko pareta apaintzeko

S.H. Horma-irudi artistiko bat margotuko dute Arragueta kalean, berrurbanizazio-lanak amaitu ostean. Eibarko Udalak jakinarazi duenez, kaleko espaloi baten ondoko horman egingo dute, eta 6.550 euro inguruko aurrekontua izango du. Esku-hartzea datorren astean hastea aurreikusi dute, eta lanek astebete eta bi aste artean iraungo dute.

Arragueta kalea azaroaren hasieran ireki zuten berriro trafikorako, hainbat hilabetez itxita egon ondoren. Besteak beste, errepidea berritu eta espaloiak zabaldu dituzte. Lanek 1,25 milioi euro inguruko inbertsioa izan dute.

Aire girotua jarriko dute Coliseo antzokian, 300.000 euroko aurrekontuarekin

S.H. Coliseo antzokian aire girotuko sistema jarriko dute 2027an. Eibarko Udalak 300.000 euro inguruko aurrekontua bideratuko du horretarako, eta lanak apirilean eta maiatzean egitea aurreikusi du. Hala, sistema udako hilabete beroenetan erabiltzeko prest egotea nahi dute.

Udalak herritarren eskaerei erantzuteko hartutako erabakia dela azaldu du. Izan ere, ekainean, uztailean eta irailean tenperatura altuak izaten dira Coliseon, eta horrek eragina du antzokira joaten direnengan zein bertan lan egiten dutenengan. Aire girotua jarrita, antzokira joaten diren herritarren eta bertan lan egiten dutenen erosotasuna hobetu nahi du Udalak.

Jarduketa oraindik ez da esleitu. Udalak datorren astean argitaratuko du lizitazioa, eta interesa duten enpresek 26 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko. Kontratazioak proiektuaren idazketa eta obren gauzatzea batera jasotzea nahi du Udalak, prozesua arintzeko.

Lanak egiteko aurreikusitako epea betetzen bada, Coliseok aire girotuko sistema berria izango du 2027ko udako hilabeteetarako.





Hamabi udaltzain plaza eskainiko dituzte Debabarrenean, horietako bost Eibarren

S.H. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta Eudelek Euskal Poliziaren zazpigarren deialdi bateratua zabaldu dute, eta Debabarrenean hamabi udaltzain plaza eskainiko dituzte: bost Eibarren, lau Elgoibarren eta hiru Ermuan. Deialdiak, guztira, 593 lanpostu biltzen ditu Araba, Bizkai eta Gipuzkoan: 430 Ertzaintzarako eta 163 udaltzaingoetarako.

Hautagaitza aurkeztu nahi dutenek azaroaren 26ra arteko epea dute. Besteak beste, batxilergoko titulua edo baliokidea izan beharko dute, eta 18 eta 38 urte artean izan. Izena ematerakoan, hautaketa-prozesua euskaraz ala gaztelaniaz egin nahi den adierazi behar dute.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ohartarazi du deialdiko 593 lanpostuetatik 127k (%21,41ek) ez dutela euskararen ezagutza egiaztatzeko derrigortasunik. Zerrendan hamar udalerri ageri dira euskararen ezagutza derrigorrezkoa ez den udaltzain lanpostuekin: Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Getxo, Irun, Muskiz, Portugalete, Sestao eta Gasteiz. Eibar, Elgoibar eta Ermua ez daude zerrenda horretan.

Algaraklown elkartearen 2027ko egutegiak Eibarren erosteko aukera dago

S.H. Algaraklown ospitaleko pailazoek 2027. urteko egutegia kaleratu dute. Argazki koloretsuz betetako egutegiak ondo irudikatzen du irabazi asmorik gabeko elkarte honek ospitaletako gaixoak eta haien familiak animatzeko eta "irribarrekin sendatzeko" egiten duen lana. Datorren urteko egutegirako aukeratu duten gaia euskal mitologia da. Eibarren, La Salle ikastetxean, Ogiberrin eta Coviran supermerkatuan erosi daiteke.



Jose Ugarteburu Arrillaga

2019-11-11



Goikoetxeko alabia,
Mandiolako semia,
bi pertsona ikusgarri
bat bestia baino hobia,
gure parte izeteko
guk euki dou ohoria,
bixok be oso maitxiak
bixok bihotz berezia,
Azaroak hamaika ta
lortu dozue grazia,
semia bila etorri
amakin berriz batzia,
baina ez pentsau sekula
guk zuek bixok ahiztia,
ezinezkua dalako
hutsunia betetzia.

Eskerrik asko une latz hauetan gure ondoan egon zareten guztioi. Maitasunez. ETXEKOAK

Dominga Arrillaga Arrillaga

2026-11-11



Gaztañerre ospakizunak giro polita sortu zuen herriko kaleetan

Urtero bezala, lagunarteko afari-meriendek eta gaztaina erreek protagonismo berezia hartu zuten herriko etxe eta elkarteetan, Eibarren errotuta dagoen ohitura zaharrari eutsiz. Egunari kale giroa gehitu zion Eibarko AEK euskaltegiak antolatutako kalejirak: Eibarko Musika Eskolako trikitilarien laguntzarekin, parte-hartzaileak kalera atera ziren kantuan, Ipurua aldean Gaztañerre ospatzeko eta euskal kulturarekin lotutako ohitura hau bizirik mantentzeko.

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**
Argazki gehiago: **WWW.ETAKITTO.EUS**











Eraso matxistei aurre egiteko prest

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da, eta Eibarko zein eskualdeko eragileek hainbat ekimen egingo dituzte eraso matxistak publikoki salatzeko eta arazoari aurre egiteko, indarkeria matxistarik gabeko gizarte baten alde mobilizatuz.

BIDEOA

Azaroaren 25a data garrantzitsua da indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa berritzeko. Tamalez, datuek errealitate honen larritasuna erakusten dute berriro ere: 2026ko lehen hamar hilabeteetan, EAEn, 4.814 emakumek salatu dute indarkeria-kasuren bat (kontuan izan askok ez dituztela erasoak salatu), guztira 7.119 biktimizazio erregistratuz. Oso kezkagarria da biktimen adina, 14 urtetik beherako 334 adingabek eta 14 eta 17 urte bitarteko 374 gaztek jasan baitute indarkeria. Eibarko datuei begiratuta, iaz 10.000 emakumeko 62,78 biktimizazio erregistratu ziren, Debabarreneko zein EAEko batez bestekoaren gainetik kokatuz gure herria.

Datu hauen aurrean, herriko hainbat eragilek eta Udalak egitarau zabala prestatu dute azaroan zehar, herritarren artean konpromiso kolektiboa indartzeko asmoz. Andretxean, adibidez, 'Etiopiako emakumeen ahotsak eta erresilientziak' argazki erakusketa egongo da ikusgai azaroaren 29ra arte, Egoiaiziarekin elkarlanean. Kultur ekimenen artean, azaroaren 20an





Pagatxa emakumeen elkarteak zine foruma egingo du 'Una cuestión de género' pelikulari buruz, 22an Pamela Palencianok 'No solo duelen los golpes' bakarrizketa eskainiko du, eta 24an 'Isiltasunaren indarra' dokumentalaren emankizuna zein solasaldia egingo dira Andretxean. Azaroaren 25ean herritarrek kaleak hartuko dituzte.

Indarkeria bikarioa eta instituzionala

Aipamen berezia merezi du domekan, azaroaren 22an, Ipuruako Merkatu Plazan egingo den topaketak, non haurtzarotik eta osasunetik hasita genero-indarkeria bikario zein instituzionalera arteko gaiak aztertuko diren.

11:30etik 12:30era, Lola Aguilar Redorta pediatrak aita-figura bortitz batekin bizitzeak osasunean dituen ondorioak azalduko ditu, jaio aurreko etapatik hasita. Jarraian, 13:00etatik 14:00etara, Maria Villalobos Gilek genero-indarkeria bikarioaren eta instituzionalaren biktima diren haur eta nerabeen egoera izango du hizpide. Topaketa honek gizartearen babesa eta elkarrekin hausnartzeko zein entzuteko gunea eskainiko ditu.

«Antolatu gaitezen, bete ditzagun kaleak eta astindu dezagun Eibar»

Misoginiari, transfobiari eta faxismo erreakzionarioari aurre egiteko autodefentsa feminista aldarrikatu du Matrakak Azaroaren 25aren harira. Gazte feministen ustez, ezinbestekoa da saretzea eta antolatzea.



Eskuin muturra indarra hartzen ari den honetan, argi adierazi nahi du bere jarrera Matrakak. Azken urteotan diskurtso matxistak, transfoboak, arrazistak eta faxistak ugaritu direla ohartarazi dute, baita horiek normalizatzeko arriskua ere. «Urteetako borrokaren bidez lortutako eskubideak berriro zalantzan jartzen ari dira, eta hori ezin dugu onartu», azaldu dute.

Haien ustez, zapalkuntza horiek elkarri lotuta daude, eta «mundu zisheteropatriarkal, kapitalista eta kolonialista» mantentzeko nahiari erantzuten diote. Indarkeria matxista, gainera, ez da kasu isolatuetara mugatzen: «Egunerokoan ditugun jarrera, diskurtso eta botere-harremanetan ere agertzen da».

Gazteen artean, bereziki gizon gazteen artean, diskurtso antifeministen gorakada nabaritzen dute. Feminismoak lortutako aurrerapausoek ordura arte zalantzan jartzen ez ziren pribilegioak kolokan jarri dituztela uste dute, eta horren aurrean batzuek feminismoa mehatxu gisa ikusten dutela. Atzerapausoez ere ohartarazi dute: «Eskubideak eta berdintasuna ez dira berez etortzen, borrokaren bidez lortzen dira, eta horregatik ezin dugu erlaxatu».

Transfeminismoa eta autodefentsa

Misoginia eta transfobia batera aipatzen dituzte, biak genero-arau patriarkaletatik abiatzen direlako. Horregatik, feminismoak transfeminista eta intersekzionala izan behar duela aldarrikatzen dute. «Emakume transak borroka feministaren parte dira, eta haien eskubideak defendatzea ere feminismoaren ardura da». Emakume guztiek zapalkuntzak modu berean bizi ez dituztela gogorarazi dute, eta inor kanpoan utziko ez duen borroka baten alde egin dute.

«Ez dugu beldurrean oinarritutako bizitza bat nahi. Beldurra eta amorrua antolakuntza eta borroka bihurtu nahi ditugu»

Autodefentsa feminista, berriz, norbere burua babestetik harago doala azaldu dute. Patriarkatua eguneroko bizitzako eremu guztietan dagoela diote, eta horri aurre egiteko sareak sortzea, elkarri sinestea eta erasoei batera erantzuteko tresnak eraikitzea ezinbestekoa dela. «Ez dugu beldurrean oinarritutako bizitza bat nahi. Beldurra eta amorrua antolakuntza eta borroka bihurtu nahi ditugu».

Azkenik, gazte eibartarrak antolatzera eta egunerokoan jarrera matxista, transfobo eta arrazisten aurrean isilik ez geratzera animatu dituzte. «Isiltasuna ere konplizitatea da». Haien mezua argia da: «Ez dugu atzera egiteko asmorik, eta ez dugu inor atzean utziko. Antolatu gaitezen, bete ditzagun kaleak eta astindu dezagun Eibar!».



LEIRE AZKUE • Matraka! Eibarko Gazte Feminista taldea

Autodefentsa feminista: arauak hausteko eta bizitzak erdigunean jartzeko

Zer esan nahi du gaur egun feminista izateak? Nor sartzen da borroka horretan, eta nor geratzen da kanpoan? Galdera horiek egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu, batez ere feminismoaren izenean ere diskurtso transbaztertzaileak zabaltzen diren garai honetan. Guretzat, argi dago: ez dago askapen feministarik sexu-genero disidenteen errealitateak ukatzen badira. Ezin dugu sistema patriarkala irauli nahi dugula esan, haren arauak erreproduzitzen jarraitzen badugu.

Transfeminismoak aukera ematen digu emakume eta gizon izateko modu bakarra dagoela dioen ideia zalantzan jartzeko. Arau zisheterosexualak gorputzak, desirak, harremanak eta bizitza-proiektuak antolatzen ditu; zer den normala eta zer ez, zer den onargarria eta zer zigortu behar den erabakitzen du. Baina arau horiek ez dira naturalak, ezta aldaezinak ere. Horregatik, transfeminismoa ez da feminismoari beste borroka bat gehitzea soilik: gure gorputzak eta harremanak ulertzeko modua bera eraldatzeko proposamena da.

Neska eta sexu-genero disidenteok ibilbide desberdinak ditugu, eta indarkeria espezifikoak jasaten ditugu. Ez dugu esperientzia bakar batetik hitz egiten, ezta denok zapalkuntza modu berean bizi ere. Hala ere, desberdintasun horiek aitortzeak ez du esan nahi banandu behar dugunik. Aitzitik, gure arteko aliantzak eraikitzea eta subjektu politiko desberdinei beren ahotsa eta protagonismoa aitortzea ezinbestekoa da. Ez gaitu berdinak izateak elkartzen, sistema patriarkalaren aurka borrokatzeko proiektu politikoak baizik.

Hortik ulertzen dugu autodefentsa feminista ere. Autodefentsa ez da soilik eraso bati aurre egiteko erantzuna, ezta geure burua indarkeria-testuinguru batean babesteko estrategia hutsa ere. Gure bizitzak kontrolatzen dituzten arauak desobeditzea da; gure gorputzak, desirak eta harremanak askatasunez bizitzeko espazioak sortzea. Lagunak eta zaintza gure bizitzen erdigunean jartzea, espazio politiko eta publikoak berrartzea eta elkarrekin beste bizimodu batzuk irudikatzea ere autodefentsa da.

Ez dugu sistema zisheteropatriarkalak ezarritako mugen barruan leku apur bat gehiago eskatzen. Muga horiek nork ezarri dituen eta zertarako balio duten auzitan jarri nahi ditugu. Ez dugu arau horietara egokitzen ikasi nahi; arauak beraiek eraldatu nahi ditugu.

Horregatik, guretzat autodefentsa feminista ez da soilik defendatzeko tresna: bestelako mundu bat eraikitzeko estrategia politikoa da. Eta mundu hori guztiontzat izango da, edo ez da izango.

“Autodefentsa feminista ez da soilik defendatzeko tresna: bestelako mundu bat eraikitzeko estrategia politikoa da”

A25

A25

Emakume langileen aldeko borroka kalera eramateko deia

Debabarreneko Itaia Emakumeen Antolakunde Sozialistak emakume langileen egungo egoeraren inguruan hausnartu eta alternatiba sozialistaren beharrezkotasuna aldarrikatzen du. Garrantzitsua ikusten du emakume langileen aldeko borroka sustatzea, kalera eramatea eta ahalik eta emakume gehien antolakuntza politikora biltzea. Horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu A25 dela eta.



Aicha Hamideddine, Itaiako kidea

Itaia Emakumeen Antolakunde Sozialistako Aicha Hamideddinek ohartarazi duenez, "azken urteetan alderdi eta eragile ultraeskuinek indarra hartu dute, eta ideia faxistak zein matxistak zabaltzen ari dira kalean, sare sozialetan eta instituzioetan". Horrek emakume langileen bizi-baldintzetan eragin zuzena duela salatu dute. Erakundearen arabera, diskurtso matxistak normalizatzeaz gain, maila ekonomikoan ere egoera nabarmen okertzen ari da: soldata baxuak, lan ezegonkorrak eta etxebizitzarako sarbide mugatua dira nagusi.

Testuinguru horretan, euren ustez, "kale mailako erantzuna desegin egin da, ezkerreko alderdiek beren praktika politikoa instituzioetara mugatu dutelako eta antolakuntza politikoa hustu dutelako". Gainera, erakundeek eta alderdi instituzionalek emakume langileen zapalkuntzari aterabidea emateko duten ezintasuna agerian geratu dela adierazi du erakundeak.

Politika instituzionalaren mugen artean lau arlo nagusi nabarmendu ditu Itaiak: batetik, poliziaren jarrera salatu dute. Bestetik, urruntze-aginduen mugak azpimarratu dituzte. Neurri horiek babesa eman beharko luketen arren, azken bost erailketatik bat urruntze-agindua indarrean zegoela gertatu dela gogorarazi dute. Horrez gain, osasun publikoan bizi den egoera jarri dute auzian. Eta azkenik, soldata-arrakalaren inguruko datuak ere zalantzan jarri dituzte.

Honen aurrean, desmobilizazioari aurre egiteko eta emakume langileen aldeko borroka kalera eramateko beharra aldarrikatu du Itaiak. Diskurtso matxistei planto egin eta eraso bakoitzari erantzuteko deia luzatu dute.

"Kale mailako erantzuna desegin egin da, ezkerreko alderdiek beren praktika politikoa instituzioetara mugatu dutelako eta antolakuntza politikoa hustu dutelako"





ENERITZ IRURETAGOIENA • ITAIAko kidea

Oraindik ez naiz ohetik altxatu

Esnatu naiz. Alarma itzali, begiak erdi itxita mugikorra hartu eta Instagram ireki dut. Lehenengo bideoa: gizon bat emakumeek nola jantzi behar duten azaltzen. Hurrengoa. Beste bat, emakume batek bikotekide ona izateko zer egin behar duen esaten. Hurrengoa. Emakume baten argazkiak baimenik gabe zabaldu dituztela dioen albistea. Hurrengoa. Beste eraso matxista bat. Hurrengoa. Erailketa bat. Hurrengoa?

Ez dakit zerk ematen didan amorru handiagoa: egunero horrelakoak irakurri behar izateak edo horiek guztiak gero eta normaltasun handiagoz hartzen ditugula ikusteak. Emakumeon gorputzak eztabaidagai bihurtu dituzte, gure bizitzak epaitzeko eskubidea dutela sinetsi dute, eta edozein astakeria esateko askatasuna aldarrikatzen dute. Bitartean, diskurtso horiek indarra hartzen dute, eta emakumeon aurkako jarrerak gero eta onargarriago bihurtzen dira.

Baina ez gaitezen engaina. Ez gara sare sozialetako lau gizonen iritziez ari. Emakumeen argazkiak partekatzeko foroak sortzen dituztenez, ezkutuan grabatzeko kamerak jartzen dituztenez eta erasoak egin ondoren lasai asko jarraitzen dutenez ari gara. Eta, batez ere, hori guztia ahalbidetzen duen inpunitateaz.

Zerk ematen die horrela jokatzeko ausardia? Nork sinetsarazi die emakumeekin nahi dutena egin dezaketela? Erasotzaileek jakin badakite, askotan, beren ingurukoen babesa izango dutela. Batzuek erasoak justifikatuko dituzte, beste batzuek garrantzia kenduko diete, eta gehienek beste aldera begiratuko dute. Isiltasun hori ez da neutrala. Erasoak normalizatzeko eta erasotzaileak babesteko balio du.

Baina badago kezkatzen nauen beste kontu bat ere. Eraso bakoitzaren ondoren, emakumeoi eskatzen zaigu kontuz ibiltzeko, arriskuak saihesteko eta geure burua babesteko. Ardura gure gain jartzen da berriro. Eta ez da kasualitatea: emakume langile askok ez dute indarkeria egoeretatik ateratzeko baliabide ekonomikorik, etxebizitza eskuratzeko aukerarik edo behar duten babesik. Beraz, ez gara jarrera matxista jakin batzuez soilik ari, emakumeon menpekotasuna eta babesgabetasuna betikotzen dituzten baldintzez ere ari gara.

Baina amorrua ez da nahikoa. Eraso bat salatu, albistea partekatu eta hurrengora pasatzeak ez du egoera aldatuko. Erasotzaileei aurre egiteko, haien inpunitatearekin amaitzeko eta emakume langileon bizi-baldintzak eraldatzeko, indarrak batu eta antolatu beharra dago.

Bihar ere esnatuko naiz, mugikorra hartu eta, seguruenik, antzeko zerbait irakurriko dut. Baina bihar ez dut amorrua pantailaren beste aldean utziko.

"Ez gara sare sozialetako lau gizonen iritziez ari, hori guztia ahalbidetzen duen inpunitateaz baizik"

A25

«Arrazoiak soberan ditugu A25ean kaleak hartzeko»

Indarkeria matxistaren adierazpen agerikoenak ez ezik, egunerokoan normalizatutakoak ere identifikatzeko deia egin du Marasmia Eibarko talde feministak. Autodefentsa feminista aldarrikatu dute, eta saretzea ezinbestekotzat jo dute faxismoari aurre egiteko.

«Ez dira garai errazak, eta arrazoiak soberan ditugu Azaroaren 25ean kaleak hartu eta aldarriz betetzeko». Marasmiako kideen ustez, sistema zisheteropatriarkal, kolonial eta kapitalistak zapalkuntzak eta indarkeriak betikotzeko egiturak ditu martxan. Emakumeak*, migratuak eta arrazializatuak eta sexu-genero disidenteak dira gehien kolpatzen direnak. Egoera hori faxismoaren, eskuin muturraren eta diskurtso erreakzionarioen bidez gero eta ageriago geratzen ari dela ohartarazi dute.

Indarkeria matxista, ordea, ez da eraso fisikoetara mugatzen. Marasmiako kideek izozmendiaren irudia erabili dute hain agerikoak ez diren indarkeria motak azaltzeko: bikotekidea jendaurrean gutxiestea, lagunarteko elkarrizketa matxistak, mugikorraren bidezko kontrola, publizitate sexista edo zaintza-lanen banaketa desorekatua, besteak beste. Azken hori ere egiturazko indarkeriaren parte dela diote, emakumeek* sostengatzen baitute sistema, askotan inolako aitortzarik gabe. Horrez gain, aurten Euskal Herrian erail dituzten bost emakumeak gogora ekarri dituzte.

Diskurtso antifeministek eta matxistek indarkeria normalizatzen eta mugimendu feministaren borroka deslegitimatzen laguntzen dutela salatu dute. Sare sozialek mezu horiek zabaltzeko bidea ematen dutela azaldu dute, eta horien aurrean ezin dela neutral izan: «Diskurtso horiek zalantzan jartzea, seinalatzea eta erantzunak kolektiboki eraikitzea ezinbestekoa da».

Autodefentsa eta saretzea

Marasmiak autodefentsa feminista aldarrikatzen du borrokarako tresna gisa. Erasoen aurrean antolatzeaz gain, eskubideen ukazioari aurre egitea, etxebizitza-eskubidearen alde borrokatzea, zaintza-lanen banaketa aldarrikatzea eta bizi-eredu alternatiboak eraikitzea ere autodefentsa dela azaldu dute. «Faxismoari feminismoz erantzungo diogu».



«Autodefentsa feminista gure borrokarako tresna da: faxismoari feminismoz erantzungo diogu»

Azaroaren 25aren harira, kafe-tertulia antolatu dute, hain agerikoak ez diren erasoak identifikatu eta horiei erantzuteko tresnak elkarrekin pentsatzeko. Esperientziak partekatzeko, belaunaldi ezberdinak elkartzeko eta aliantzak sortzeko espazioa izatea nahi dute. «Gure arteko saretzea da Eibar feministago batera bidean urrats gakoetako bat».

Marasmiako kideek antolatzeko eta askotariko borrokak elkartzeko deia egin dute. Haien mezua argia da: «Ez ginen atzera egiteko jaio, eta ez gara etxean geratuko».



NAIA KORTABERRIA • Marasmia talde feministako kidea

Ez ginen atzera egiteko jaio

Beste urte batez, Azaroaren 25ak kaleak hartzera deitzen gaitu. Berriro ere, haserrea, mina eta amorrua ditugu arrazoi, baina baita borrokan jarraitzeko indarra ere. Azken urtean Euskal Herrian eraildako bost emakumeak gogoratuz eman nahiko genioke hasiera artikuluari: Tatiana, Amaia, Arelys, Saida eta Kalie. Bost bizitza, bost istorio eta hutsune konponezinak utzi dituzten bost erailketa. Haien memoria bizirik mantentzea ez da omenaldi hutsa; indarkeria salatzeko, biktimak aitortzeko eta berriro gerta ez dadin borrokatzeko modu bat da. Ezin dugu ahaztu, ezin dugu normalizatu.

Baina indarkeria matxista ez da muturreko kasuetan bakarrik agertzen. Gure egunerokoan dago, harremanetan, lan-munduan, kaleetan, etxeetan eta erakundeetan. Desberdinkeria elikatzen duen sistema baten ondorio da, eta ez emakume bakoitzak banaka konpondu beharreko arazoa. Horregatik, ezinbestekoa da egiturazko aldaketak borrokatzea: sua sistema zisheteropatriarkal, kapitalista eta kolonialari.

Honekin batera, kezka handiz ikusten dugu feminismoaren aurkako diskurtsoen gorakada. Are kezkagarriagoa da diskurtso horiek feminismoaren izenean zabaltzea, emakumeen segurtasuna aitzakia hartuta gorrotoa, arrazakeria eta bazterketa justifikatzeko. Argi dugu, ordea, feminismoa ezin dela inoren eskubideak urratzeko tresna bihurtu.

Izan ere, feminismoak ezin ditu emakume batzuk babestu beste pertsona batzuen zapalkuntza eta bazterketa onartuz. Migratuak, arrazializatuak eta sexu-genero disidenteak ez dira borroka honen albo-kalteak, subjektu politiko eta borrokaren protagonista baizik. Haien errealitateak eta aldarrikapenak bazterrean uztea ez da feminismoa indartzea; kontrakoa, zapalkuntzak sortzen eta elikatzen dituen sistema bera indartzea da.

Horregatik, azaroaren 25ean kalera ateratzeko deia egin nahi dugu, baina konpromisoak urteko 365 egunetan iraun behar du. Eibarren ere badugu zer egin: entzun, antolatu, salatu, zaintza-sareak indartu, eragile feministak babestu eta erakundeei benetako neurriak exijitu.

Indarkeria matxistaren aurkako borroka ez da emakumeen ardura soilik. Gizarte osoari dagokio. Gizonek ere beren pribilegioak aztertu, indarkeriaren aurrean isilik ez geratu eta aldaketaren parte izan behar dute.

Ez gara beldurrean bizitzeko jaio, ezta atzera egiteko ere. Eibar eta Euskal Herri askeagoak, feministagoak eta bizigarriagoak eraikitzea guztion ardura da. Azaroaren 25ean eta urteko egun guztietan, feminismoz erantzun. Ez gara etxean geratuko.

" Indarkeria matxista desberdinkeria elikatzen duen sistema baten ondorio da, eta ez emakume bakoitzak banaka konpondu beharreko arazoa"

A25

“Scrapbook” tailerra antolatu du ...eta kitto!-k abenduaren 10erako



Izen berezi horren atzean, argazkiak eta oroitzapenak koaderno fisikoetan sormenez islatzeko tailerra dago. Abenduaren 10erako antolatu du ...eta kitto!-k, Illunabarrian programaren barruan, eta izen-ematea zabalik dago. Tailerrean collageak, pegatinak, letra mota desberdinak, kontzertuetako sarrerak, oharrak eta paper apainduak nahastuz, oroitzapenak gordetzeko album berezi bat sortuko dute. Ez da trebetasun berezik behar, “kontua gustuko materialak konbinatzea eta sormenari bide ematea baita”, diote elkartetik. Saioa 19:00etan hasiko da ...eta kitto!-ren egoitzan. Izena ondoan duzuen QR-aren bitartez, mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus) edo telefonoz deituz (943200918) eman daiteke.



Euskara sarituko du martitzenean “Euskeraz primeran!” galak

Azaroaren 24an, martitzena, “Euskeraz primeran!” galaren 2. edizioa antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Coliseo antzokian. Ekitaldi honen bitartez, herriko hainbat establezimenduk euskararen erabilera handitzeko hartutako konpromisoak bete izana sarituko da. “Eibarko merkatariak zoriondu eta euskararen alde egiten dutena aitortzeko ekitaldia izango da, egunero egiten duten ahaleginagatik, euskararen erabilera handitzeko ezinbestekoak dira-eta”, diote ...eta kitto!-tik. Galan, merkatari bakoitzak dagokion saria jasotzeaz gain (zilarra edo urrea) musikak ere izango du tartea.

San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

...eta kitto! Euskara Elkarteko bertso-taldeko epaimahaiak aukeratu ditu aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak. 16 urtetik beherakoen mailan, irabazlea Nile Arrizabalaga Arakistain izan da eta bigarrena, berriz, Helene Egiguren Kortazar. Helduen mailan Euskal Herri osoko dozena bat lan iritsi dira ...eta kitto!-ra. Irabazlea Oñatin bizi den Urko Egaña azpeitiarra izan da eta bigarren postua Iñigo Legorburu hernaniarrak bereganatu du. Irabazleek datorren barixakuan, azaroak 27, Coliseo antzokian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Aurtengo saioan boskote bikainak jardungo du: Aner Peritz, Andoni Egaña, Irune Basagoiti, Xabat Illarregi eta Aitor Etxebarriazarragak Jon Mikel Mujiaren aginduetara jardungo dute 20:00etatik aurrera. Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai Coliseoko leihatilan.

56. alea

2026ko azaroak 20

etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarko merkatu inmobiliarioak aldaketa nabarmenak izan ditu azken urteetan, batez ere prezioen igoerari, eskaintza eskasiari eta erosle zein maizterren behar berriei dagokienez. Egoera honek erronka handiak sortu ditu herritarrentzat eta sektoreko profesionalentzat. Gaur egun, hiru eskari profil nagusi daude: etxebizitza merkeak bilatzen dituzten gazteak, bi edo hiru gelako pisuak behar dituzten familiak, eta oztopo arkitektonikorik gabeko lekuak eskatzen dituzten adinekoak. Horien guztien artean, faktore erabakigarriena prezio eskuragarria izatea da.

Etxebizitza bat eskuratzea ez da erraza. Erosleek oztopo ekonomikoak dituzte mailegu hipotekarioak lortzeko baldintza zorrotzengatik eta alokairuaren merkatuan ere egoera antzekoa da: prezio altuak eta eskaintza urria dira nagusi.

Tokiko higiezinen agentziek funtsezko zeregina betetzen dute, merkatuko ezagutza eta laguntza profesionala eskainiz salmenta nahiz alokairu prozesuak errazteko.

AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29
Produktu hauek Aukera Inmobiliariakoak dira ESKLUSIBAN




Sautxi Ref.3134 **199.500€**

2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Igogailua eta garajea. Bizitzera sartzeko.

T. Etxebarria Ref.2976 **289.000€**

2 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. Estreinatzeko. **BEZ-ari lotutako prezioa**




Santaiñes Ref.3146 **159.000€**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakziorekin. Oso argitsua.

Barakaldo Ref.3101 **110.000€**

Logela, sukalde-egongela eta komuna. Balkoia eta pertziana motorizatuekin. Bizitzera sartzeko.

Laster 3 etxebizitza estreinatzeko Eibarren



Jarri gurekin kontaktuan!

Etxebizitza-merkatuaren egoera Eibarren: eskaria, zailtasunak eta prezioen igoera

Eibarko merkatu inmobiliarioak aldaketa nabarmenak bizi izan ditu azken urteetan. Hiru alderdi nagusitan antzeman dira aldaketa horiek: etxebizitzen prezioen igoeran, eskaintza eskasian –bereziki alokairuaren arloan–, eta erosleen zein maizterren profiletan eta beharretan. Egoera honek erronka berriak ezarri dizkie bai herritarrei eta bai sektoreko profesionalei.



Hiru eskari mota nagusi merkatuan

Eibarko etxebizitza eskariak hiru profil nagusi ditu gaur egun, bakoitza bere berezitasunekin:

• Gazteak: gehienbat alokairuko pisu merkeak eta ondo kokatuta daudenak bilatzen dituzte.

• Familiak: bi edo hiru gelako etxebizitzen eskatzaile nagusiak dira, beren eguneroko beharrei aurre egiteko nahikoa leku izateko.

• Adineko pertsonak: etxebizitza eskuragarri, eroso eta egokituak behar dituzte, hobe trabarik edo oztopo arkitektonikorik ez badute.

Erosleen eta maizterren zailtasunak

Etxebizitza bat eskuratzea ez da prozesu erraza gaur egun Eibarren. Erosleek, alde batetik, oztopo ekonomiko handiak dituzte. Mailegu hipotekario bat lortzea zaila da bankuek ezarritako baldintza zorrotzak bete beharrekoak direlako. Horrez gain, hasierako sarrera ordaintzeko dirua aurrezteak ahalegin handia eskatzen die herritarrei.

Alokairuaren merkatuan, aldiz, egoera ez da samurragoa. Arazo nagusiak prezio altuak, eskuragarri dauden etxebizitza eskasia eta eskaera handia dira. Faktore horiek guztiak elkartzean, ia ezinezkoa bihurtzen da prezio eskuragarrian pisu bat aurkitzea.

Tokiko profesionalen garrantzia

Egoera konplexu honen aurrean, Eibarko tokiko higiezinen agentziek funtsezko zeregina betetzen dute. Merkatuaren ezagutza zuzena dute: zein auzotan dagoen mugimendu handiagoa, zein profil dabilen etxebizitza bila eta zein prezio-tarte diren errealistak jakitea funtsezkoa da. Gertutasunak eta harreman sareek salmenta nahiz alokairu prozesua gerora arintzen laguntzen dute.

Azken azterketen arabera, etxebizitza bat merkaturatzea ez da soilik iragarki bat jartzea; estrategia, ezagutza eta konfiantza ezinbestekoak dira. Informazio egokiarekin eta laguntza profesionalarekin, bidea errazagoa eta seguruagoa bihurtzen da bai saltzaileentzat eta bai erosleentzat.

F. Calbeton, 22-24
LARRAGEST
AGENCIA INMOBILIARIA
697 258 966 943 200 012
Eibarko zure konfiantzazko inmobiliaria

Etxebizitza bila dabilenek gehien balioesten dituzten ezaugarriak

Etxebizitza bat erosi edo alokatu behar denean, erosle eta maizter askoren lehentasunak argiak dira. Azken datuen arabera, hainbat faktore funtsezko bihurtu dira gaur egun higiezinen merkatuan arrakasta izateko. Ezaugarri horien artean, erosotasunak eta eraginkortasun energetikoak leku nabarmena dute.



Azterlanaren arabera, gehien bilatzen den lehenengo baldintzetako bat eraikinak igogailua izatea da. Bereziki garrantzitsua da biztanleriaren zahartzeagatik eta eguneroko erosotasunerako. Halaber, oso baloratuta daude aire zabalaz gozatzeko aukera ematen duten guneak, hala nola balkoia edo terraza.

Argitasun naturalari dagokionez, etxe argitsuak lehenesten dira, ongizate emozionalari eta argindar fakturaren murrizketari laguntzen dietelako. Horrekin batera, egoera ezin hobean edo erreformatuta dauden etxebizitzek lehentasuna dute, erosleek ez baitute nahi izaten obra handietan sartu denbora eta dirua galtzea.

Bestalde, egungo klimari zein ekonomiari aurre egiteko, kalefakzioa eta isolamendu egokia funtsezkoak dira. Horiek bermatzen dute erosotasun termikoa eta energia aurrezpena. Azkenik, faktore erabakigarriena prezio asekiblea izatea da, une honetan eskaria baldintzatzen duen elementu nagusia baita.

KOTA
INMOBILIARIA + ARQUITECTURA

www.kontainmo.com
info@kotainmo.com
943 20 15 80
Bidebarrieta, 1

Eskerrik asko!!!
5 urte zuekin



Jardiñeta Ref.262
Duplexa. 2 logela eta bi bainugela
Oso eguzkitsua eta argitsua.
Bizitzera sartzeko prest. **249.000€**



Aldatze Ref.126
Pisua. 3 logela. Bista zabalak
eta oso eguzkitsua. Berritzeko.
145.000€



Errekatxu Ref.150
Pisua. 2 logela. Bizitzera sartzeko prest. Igogailua.
159.000€



Arragueta Ref.295
Apartamentua. Argitsua. Logela bat, egongela-jangela zabala.
163.000€



Mekola Ref.246
Eraikuntza berria. Bistak, eguzkitsua eta terraza. Garajea eta trastelekua.
3 logela, 2 bainugela.



Mekola Ref.247
Terraza handia. Bista zabalak
Eibarrera begira. 3 logela,
2 bainugela. Garajea eta trastelekua.



Urkizu Ref.289
Eraberritu berria. 3 logela.
Igogailua jartzen ari dira.
153.000 €



Julian Etxeberria Ref.232
Pisua. Oso argitsua. Terraza zabala. 4 logela. 2 bainugela.
340.000 €

Etxebizitza bat erosteko hipoteka lortzeko gakoak eta gomendioak



Etxebizitza bat erosi eta hipoteka bat lortu nahi dutenek hainbat baldintza eta pauso bete behar dituzte finantzaketa bermatzaile bat lortzeko. Hemengo bankuek, oro har, tasazioaren edo salerosketaren balioaren %80 arte finantzatzen dute, betiere balio horietatik txikiena erreferentziatzat hartuta.

Hori dela eta, erosleak funts propioak eduki behar ditu hasieratik. Alde batetik, bankuak finantzatzen ez duen 20ko kopurua aurreztu behar du, eta, bestetik, diru gehigarria bideratu behar du zergak eta salerosketako gastuak ordaintzeko.

Zer baloratzen dute bankuek?

Finantzaketa lortu aurretik, bankuek azterketa sakona egiten dute eskatzailearen egoera ekonomikoa ezagutzeko. Honako alderdi hauek hartzen dituzte kontuan:

• Hileroko diru-sarrerak: nahikoa eta nahiko egonkorrak izan behar dira.

• Lan-egoera: kontratu mota, antzinatasuna eta profesionaltasun egonkortasuna.

• Aurrezki eskuragarriak: sarrera eta gastuei aurre egiteko gaitasuna.

• Zorpetzea: mailegu pertsonalak, kreditu-txartelak edo ibilgailuen finantzaketa.

• Adina eta itzulketa-epea: mailegua zein epetan itzuliko den kalkulatzeko.

Gomendio gisa, hileroko hipotekaren kuotak eta gainerako zorrek ez lukete gainditu behar hileroko diru-sarrera garbien %30 edo %35 inguru. Espainiako Bankuak, gainera, %40ko gehienezko muga orientatzailea ezartzen du zorpetze totalerako.

Finantzaketa lortzeko aukerak

Etxebizitza erosteko laguntza edo finantzaketa bilatzeko hainbat bide daude merkatuan. Lehenik eta behin, banku eta aurrezki-kutxen eskaintzak alderatzea gomendatzen da. Horrez gain, aditu hipotekarioen laguntza ere kontratatu daiteke baldintzak bilatu eta negoziatzeko.

Beste aukera batzuen artean familiaren abalak daude, nahiz eta horrek arriskuak eta erantzukizunak dakarzkien abalatzaileei. Azkenik, interesatuek laguntza publikoak eta finantzaketa programak kontsultatu ditzakete, bereziki gazteei edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboei zuzenduta daudenak.

SORALUZE
INMOBILIARIA
611480198

– Etxebizitzak eta lokalak bilatzen ditugu **Eibar, Ermua eta Gipuzkoa osoan**
– Zure etxea salduko dugu **1-3 hilabetetan**
– Bezero **zerrenda luzea** dugu
– **Ez-ordaintze aseguruak** gaur egungo kontratuentzat
– Pisuak saltzen ditugu **inkilinoarekin**

OSCAR SOUSA
(INMUEBLE-AGENTEA)
Errebal, 15
–EIBAR–
inmosoraluze@outlook.es
www.inmosoraluze.com

HIGIEZINAK ARREGI INMOBILIARIA
Errebal, 20 943 203 333 www.inmoarregi.com

dp donpiso
Isasi, 16-behea. *Tel: 943 82 05 10*
Marques Valdespina 12 ERMUA

2026/11/27
20:00etan
Coliseo EIBAR

eta kitto!
euskara elkartea

Bertso jaialdia

Aner Peritz
Andoni Egaña
Irune Basagoiti
Xabat Illarregi
Aitor Etxebarriazarraga

Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika

San-Andres

Sarrerak egunean bertan Coliseoko leihatilan (8€)

db» eta kitto!
DEBABARRENA KONTATZEKO GARAIA DA

26 URTEKO SUA, DEBAKO GAZTETXEAN

DEBAKO GAZTE ASANBLADAK 26. URTEURRENA OSPATUKO DU BIHAR. HERRI BAZKARIA, MUSIKA ETA BESTELAKO EKITALDIAK PRESTATU DITUZTE, BELAUNALDI EZBERDINAK ELKARTZEKO. HILABETE OSOKO OSPAKIZUNEN BARRUAN, ZAPATUKOA IZANGO DA HITZORDU NAGUSIA.

Debako Gaztetxeak badu zer ospatu: 26 urte bete ditu aurten, eta bihar, azaroak 21, urteurreneko egun nagusia egingo dute. "Gorrotoz suntsitu, ilusioz eraiki!" lelopean, hilabete osoko egitaraua antolatu du Gazte Asanbladak, baina asteburu honetako hitzordua izango da ospakizunen erdigunea. Urteotan gaztetxetik igaro diren belaunaldiak berriro elkartu nahi dituzte, egungo kideekin eta herritarrekin batera.

Hogeita sei urte hauetan hainbat belaunaldik hartu dute parte Debako Gaztetxearen jardunean, eta gaur egun zortzi lagunek osatzen dute asanbladako lantaldea. Ibilbidean gorabeherak izan dituzten arren, gaztetxea zabalik mantendu izana nabarmendu dute kideek. Urteurrena, beraz, egindako bidea ospatzeko ez ezik, proiektuari ekarpena egin diotenak elkartzeko aukera ere izango da.

Azaroan zehar hainbat jarduera egin dituzte dagoeneko. Hilaren 6an bertso afaria antolatu zuten Iraide Onaindia, Elixabet Etxandi eta Alexander Idoetarekin, eta 13an sexu industriaren, prostituzioaren eta sexualizazioaren inguruko solasaldia egin zuten Kultur Elkartean.

Dena den, ospakizun nagusia biharkoa izago da, eta goizetik gauera luzatuko den egitaraua prestatu du Debako Gazte Asanbladak. Egun handia izatea espero dute, eta horretarako, adin eta belaunaldi ezberdineta-ko herritarrak elkartzea izango da antolatzaileen asmo nagusietako bat. Musikak, bazkariak eta bestelako jarduerek hartuko dute protagonismoa, gaztetxearen 26 urteko ibilbidea jai giroan ospatzeko.



LARUNBATEAN, FESTA GOIZETIK GAUERA

Egitaraua 13:00etan hasiko da, karropoteoarekin. Herriko kaleetan giroa berotu ostean, 15:30ean, herri bazkaria egingo dute gaztetxean. Hitzordu berezia izango da, urteotan gaztetxearen parte izan direnak, gaur egungo kideak eta herritarrak mahaiaren bueltan elkartzeko aukera eskainiko baitu. Hain zuzen ere, belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sendotu eta elkarrekin ospatzeko espazioa sortu nahi dute. Bazkarirako txartelak Koska tabernan eskura daitezke, 7 euroan.

Bazkalostean ere ez da giroa faltako. Bingo musikatuarekin emango diote jarraipena festari, eta 19:00etan elektrotxarangak hartuko ditu kaleak. Horrela, arratsalde osoan zehar luzatuko da ospakizuna, gaueko kontzertuei lekukoa eman aurretik.

Gauean, berriz, musikak hartuko du gaztetxea. 22:00etan Zerotan taldearen erromeriarekin hasiko

dira zuzeneko emanaldiak, eta gauerdian Txamakos taldeak hartuko du oholtza. Kontzertuen ostean, festa ez da amaituko: 02:00etan DJ Erratzak hartuko du musika jartzearen ardura, ospakizuna goizaldera arte luzatzeko. Gainera, gau osoan zehar tonbola ere izango da, jaiari beste osagai bat gehituz. Hala, askotariko musika eta ekintzak uztartuko dituen eguna prestatu dute, parte-hartzaile guztiek ospakizunean beren lekua izan dezaten.

Dena den, biharko festarekin ez da amaituko 26. urteurreneko egitaraua. Azaroaren 27an, ostiralean, haurrei eta familiei zuzendutako arratsaldea antolatu dute gaztetxean. 17:00etatik aurrera, txotxongilotailerra, ipuin-kontaketa eta txokolate-jana izango dira. Modu horretan, gaztetxearen ateak txikienei ere zabalduko dizkiete, eta hilabete osoan zehar egindako ospakizunei amaiera emango diete.

Urteurrenaren harira, gainera, 26. urteurrenerako propio diseinatutako kamisetak eta jertseak ere prestatu dituzte. Horien inguruko informazioa sare sozialen bidez zabalduko dute, eta beste sorpresaren bat ere iragarri dute antolatzaileek.

Gazte Asanbladak herritar guztiei luzatu die ospakizunetan parte hartzeko gonbita. Izan ere, 26 urteko ibilbidea ez dute gaur egungo kideen artean bakarrik ospatu nahi, gaztetxearen historia osatzen lagundu duten guztiekin baizik. Iraganeko eta egungo belaunaldiak elkartu, urte hauetan egindako lana aitortu eta etorkizunari begira indarrak berritzea izango da biharko hitzorduaren helburua.





Azaroak 19

UMOREA	**PROBALEKU IBILTARIA** JONE BENGOA, ASIER K, BEÑAT...	19:30	ESKILARAPEKO (ERMUA)
MUSIKA	**PETTI & ANA GALARRAGA**	20:30	ANTZOKIA (SORALUZE)

Azaroak 20

AZOKA.	**ERDI AROKO MERKATUA**	18:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
A25	**ZINE FORUMA PAGATXA**	20:00	ARMERIA ESKOLA (EIBAR)
DANTZA	**VERDINIREN DISDIRA**	19:00	HERRI ANTZOKIA (ELGOIBAR)
MUSIKA	**DR FEELGOOD.** BLUES HOTSAK	19:00	ANTZOKIA (SORALUZE)
MUSIKA	**HARAT.** GARAROCK UDAZKENEAN	22:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)
MUSIKA	**XABI ABURRUZAGA TRIO**	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

Azaroak 21

A25	**AUTODEFENTSA TAILERRA.** ITAIA	11:00	RONIN CLUB (EIBAR)
A25	**KAFE TERTULIA.** MARASMIA	12:00	ARRATE KULTUR ELKARTEA (EIBAR)
LANDAK.	**ZUHAITZ LANDAKETA**	09:00	ASKABEITTI, SAN ANDRES (SORAL.)
JABEKU. ESKOLA	**"EMAKUMEEN* KORRIKA TALDEA"**	10:30	ESTAZIÑO (SORALUZE)
BLUES HOTSAK (SORAL)	**-JOAN PAU CAMELLAS, PAUL SAN MARTIN & ROMAIN GRATALON**	13:00	ETXABURUETA
	- DEROBERT & THE HALF-TRUTHS	19:00	ANTZOKIA
	"SWEET MARTA & THE BLUES SHAKERS	22:00	GAZTETXEA
JAIA	**GAZTE ASANBLADAREN 25. URTEURRENA**	13:00	HERRIAN ZEHAR (MUTRIKU)

Azaroak 22

HITZALD.	**LOLA AGUILAR, MARIA VILLALOBOS** (BIOLEN. BIKARIOA.)	11:30 etatik	IMP (EIBAR)
BLUES HOTSAK	**THE UBANGI STOMP , LA PERRA BLANCO, BARRENCE WHITFIELD**	14:00	HERRIAN ZEHAR (SORALUZE)



Klub Deportiboko Atletismo Eskolako 23 atleta aritu ziren Kamel Ziani krosean

E.B. Deporreko infantil, alebin eta benjamin mailetako neska-mutilek hartu zuten parte, Martina Egaña eta Elene Beobide entrenatzaile-monitoreen gidaritzapean.

Infantil mailakoek 2.000 m-ko ibilbidea egin zuten; alebinek, 1.200 m-koa; eta benjaminek, 600 m-koa. Emaitza politak lortu eta giro onaz gozatu ondoren, hurrengo kros hitzordua azaroaren 29an izango dute, Oñatin.

Bihar, PLP probak egingo dituzte Unbeko atletismo pistan, goizean. Proba horien helburua atletek ondo pasatzea, pixkanaka hobetzen joatea eta, bide batez, Gipuzkoako Txapelketetan parte hartzeko kontuan hartuko diren markak lortzea da.

Oraingo honetan, alebinek pisua, altuera, 500 m-ko lasterketa eta 150 m-ko hesidun proba egingo dituzte. Infantilek, berriz, diskoa, jauzi hirukoitza, 500 m-ko lasterketa eta 220 m-ko hesidun proba izango dituzte.

2026-27 denboraldiko hurrengo hitzorduak abenduaren 19an, urtarrilaren 9an, otsailaren 13an eta 20an eta martxoaren 13an izango dira.

Hiru garaipen eta berdinketa bat Urbatentzat

E.B. 2. Maila Nazionaleko gizonezkoen taldeak ezin izan zuen puntu-rik urratu Manresaren aurkako partiduan (15-11), eta B taldeak bolada onari eutsi dio etxetik kanpo Lautadari 4-13 irabazita. Master taldeak ere Lautada izan zuen aurkari eta 10-10eko berdinketa lortu zuen.

Harrobiari dagokionez, Jubenil taldeak ere 10-13 galdu zuen Lautadaren aurka, eta Gizonezko Kadete taldeak ere ezin izan zuen Askartza A-rekin (10-14). Infantil Mistoak 18-8 irabazi zion Urgara Txingudiri eta Alebinek 0-6 irabazi zioten talde berari.

Ipuruako gimnastak Espainiako Txapelketan

E.B. Ipurua gimnasia erritmikoko klubeko bi taldek Espainiako Txapelketan parte hartuko dute aste honetan, Cartagenan. Infantil base taldeak eta jubenil base taldeak ordezkatuko dute kluba estatuko hitzorduan.

Bestalde, igandean, klubeko junior absolutu taldeak Espainiako Kopan lehiatuko du.

Paula Calvo hirugarren izan da Espainiako Igeriketa Txapelketa Absolutuko B finalean

E.B. Azaroaren 12tik 15era bitartean, Espainiako Igeriketa Txapelketa Absolutua jokatu da Madrilen, eta Eibar Igerixan taldeko Paula Calvok parte hartu du bertan. Hiru probatan lehiatu da igerilari elgoibartarra: 200 metro bizkarrean, 50 metro bizkarrean eta 200 metro librean. Calvoren emaitzarik aipagarriena 200 metro bizkar proban iritsi da, B finalean hirugarren postua eskuratu baitu. Horrela, Espainiako maila goreneko igerilariekin lehiatzeko aukera izan du, eta esperientzia baliotsua pilatu du denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetako batean.

Eibar Igerixan pozik agertu da igerilariak egindako lanarekin.





Bittor Astigarraga eibartarra garaile Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketan

E.B. Guztira 72 bolarik indarrak neurtu zituzten Barinagan. Bittor Astigarragak eskuratu zuen jardunaldiko garaipena sei txirlorekin, eta bere atzetik Alex Campos eibartarrak bigarren postua lortu zuen. Jose Muñoz sailkatu zen hirugarren tokian, eta laugarren postua ere Eibarrera etorri zen, Enara Montielen eskutik. Lehen sei sailkatuen zerrenda Igor Ayastuyk eta Oier Txurrukak osatu zuten, bosgarren eta seigarren postuetan, hurrenez hurren.

Sailkapen orokorrari dagokionez, Asier Azkarate bergararrak lidergoari eusten dio sendo, eta bigarren sailkatuari lau txirloko aldea ateratzen dio.

Euskal Herriko Txapelketa bihar, azaroak 21, erabakiko da: finala Elgoibarko San Migel auzoan jokatuko da, eguerdiko 12:00etan. Txapelketa amaitu ostean, parte-hartzaileek elkarrekin bazkalduko dute eta denboraldiko sari banaketa ekitaldia egingo da.

Txistorra Eguna egingo da bihar Untzagako karpan

E.B. Eibarko Txirrindulari Elkarteak XXII. Txistorra Eguna ospatuko du bihar, 2026ko denboraldiko ekitaldiei amaiera emateko. Aurreko urteetan bezala, Untzaga plazan karpa jarri dute, txistorra pintxoak eta edariak eskaintzeko.

Jardunaldia 11:30ean hasiko da, Debako gaiteroen laguntzarekin egingo duten ongietorriko txotxarekin. Ondoren, txistorra eta edariak saltzen hasiko dira, eguerdiko 15:00ak arte. Arratsaldean, berriz, 18:30ean ekingo diote berriro jarduerari, 21:00etan zozketa egin arte.

Zozketarako txartelak salgai egongo dira, klubarekin elkarlanean aritu nahi duten guztientzat. Guztira, lehen sari berezi bat, bost tarteko helmuga sari eta beste 29 sari txikiago banatuko dituzte.Sarien artean, bizikleta bat, kamisetak, maillotak, produktuen loteak, eta SD Eibar eta Real Sociedad futbol taldeen partidetarako, eta Astelena frontoiko pilota jaialdietarako sarrerak egongo dira. Sariak kirolariek eta hainbat enpresa eta norbanakok emandakoak dira.

Hartzaren Urratsak ibilbidearen azken etapa

E.B. Bosgarren etaparekin amaituko dute ibilbidea Deporreko mendizaleek, GR-289 bidearen bitartez Debagoienan zehar. Orain arte, 90 kilometro baino gehiago egin dituzte.

Bestalde, kobazuloetara egindako azken irteeran 26 lagun elkartu ziren, tartean bost espeleologo. Parte-hartzaileek haitzuloen barruko edertasuna ezagutzeko aukera izan zuten: estalaktita ugariak, harkaitzen forma malkartsuak, galeria ikusgarriak...







Asteburu borobila Eibar Eskubaloiarentzat, lehen taldeek garaipen bana lortuta

O.Z. Joan den asteburua positiboa izan zen Eibar Eskubaloiarentzat. Gizonezkoen lehen taldeak 25-31 irabazi zion Saizar Usurbili etxetik kanpo, bederatzigarren jardunaldian. Garaipen horri esker, sailkapeneko lehen postuari eutsi dio. Emakumezkoen taldeak ere garaipena lortu zuen, Malkaitz Eskubaloia 21-22 mendean hartuta Burlatan, zazpigarren jardunaldian.

Harrobiko taldeek ere emaitza aipagarriak lortu zituzten. Besteak beste, jubenil mutilek 25-22 irabazi zioten Usurbili. 46-38 hartu zuten mendean talde bera, eta infantil mutilek 10-40 irabazi zuten Usurbilen. Jubenil neskek ere 23-18 irabazi zioten Lana Aloña Mendiri.

Horrela, Eibar Eskubaloiak asteburu borobila osatu du, lehen taldeen garaipenekin eta harrobiko emaitza onekin.

Berdinketa futbol zaletuaren buruan

E.B. Futbol zaletuaren ligako lehen bi sailkatuen arteko partida jokatu zen zapatuan, azaroak 14, Unben. Bergara Pneumatikoak eta Malape Taberna aritu ziren nor baino nor eta bina amaitu zuten. Gauzak horrela, Bergarak lidergoan jarraitzen du eta bost puntura dago Malape.

Sailkapeneko beheko postuetan, azken bi sailkatuek elkarren aurka jokatu zuten eta euren arteko partida ere berdinduta gelditu zen, 1-1. Horrela, Baserrik eta Limpiezas Rueda taldeek lau punturekin jarraitzen dute berdinduta.

SAILKAPENA

1. Bergara Pneumatikoak, 19 puntu
2. Malape Taberna, 14 puntu
3. Xania Taberna, 13 puntu
4. Adahi Etxegi, 12 puntu
5. Garajes Garcia, 10 puntu
6. Kalaka Buenos Aires, 10 puntu
7. Bar Marem, 6 puntu
8. Athlete Terraza, 6 puntu
9. Limpiezas Rueda, 4 puntu
10. Baserri, 4 puntu



Julen Teran, Asier Cuevas herri-lasterketako irabazlea. ALEJANDRO DE DIEGO

Julen Teran izan zen garaile larunbatean jokatu zen Asier Cuevas herri-lasterketan

E.B. Asier Cuevas lasterketak 212 korrikalari bildu zituen zapatuan, azaroak 14, Eibarko kaleetan. Parte-hartzeari dagokionez, antolatzaileek nabarmendu dute korrikalarien %69 eibartarrak izan zirela, hau da, 147 lagun. Emakumezkoak, berriz, 71 izan ziren, parte-hartzaileen %33. Bikotekako modalitateak ere izan zuen lekua, 27 bikotek parte hartu baitzuten: horietatik zazpi emakumezkoek osatutakoak izan ziren, eta beste 20ak mistoak.

Sailkapen orokorrari dagokionez, Julen Teran Belastegi izan zen azkarrena 7,5 km-ko ibilbidean, 22 minutu eta 21 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan, Nora Martinez Baroja izan zen azkarrena, 29 minutu eta 33 segundoko denborarekin.


Sailkapen orokorra


ELKARTE BAT
MILAKA BIZIPEN
ZALETASUN BERA
Belaunaldi desberdinen arteko elkarrizketak
JAUZI BAT
BIDE BERA
Iragana, oraina eta etorkizuna elkartzen dituen saio berria
Atal berri bat hilero Hamaika telebistan
zein www.hamaika.eus/nahieran
hamaika

Asteburu honetan hasiko gara sanandresak ospatzen

San Andres jaiak ospatzeko egitarau zabala antolatu du Eibarko Udalak, herriko hainbat elkarte eta eragilerekin elkarlanean, eta horren berri eman dute aste honetan Andoni Zabala Kultura zinegotziak eta Patxi Lejardi Jaietako zinegotziak. Horrez gain, Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak ere egitarau berezia antolatu du azaroko azken astebururako.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Sanandresetarako antolatu duten egitarauak bihar (azaroak 21, zapatua) izango du hitzordu berezietako bat: Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako XXII. Txistorra Eguna. Egun osoan zehar, 09:00etatik 21:00etara, Untzaga plazan kilometro bateko txistorra prestatu eta salduko dute, musika, kirol-erakustaldi eta bestelako ekintzekin lagundutako jaian.

Azaroaren 22an, berriz, San Andres Sari Nagusiko XXXII. Bakailao Lehiaketa jokatuko da Untzagan, 11:00etatik aurrera, eta 45 bikotek hartuko dute parte.

Kultur eskaintzaren barruan, azaroaren 27an, ...eta Kitto! Euskara Elkarteak antolatutako XXX. San Andres Bertso Jaialdia egingo da Coliseo antzokian, 20:00etan. Aner Peritz, Irune Basagoiti, Xabat Illarregi, Aitor Etxebarriazarraga eta Andoni Egaña arituko dira kantuan, Jon Mikel Mujikaren gidaritzapean. Sarrerak 8 euro balio du, eta egunean bertan salduko dira, saioaren aurretik, Coliseoko leihatilan.

Azaroaren 28an, prebentziorako eta informaziorako guneak jarriko dituzte Untzagan, 23:00etatik 02:00etara (Ai Laket!, Garaiak eta Sexubizi). Eta hurrengo egunean, azaroaren 29an, Ustekabe txarangak eta Ahantzi taldeak girotuko dituzte kaleak. Eta jaietako egun nagusia azaroaren 30ean ospatuko

da, goizetik hasi eta bazkaltzeko orduraino burutuko diren ohiko jarduerekin. Egunean zehar, hainbat ekitaldi izango dira: XLVII. San Andres Nekazaritza Azoka, Usartza Txistulari Bandaren kalejira (11:30), San Andres Aizkora Txapelketaren XXII. edizioa, Errebal Plazan (12:00), bertsolariak, trikitilariak eta kalejirak Untzagan. 12:30ean, Kezka Dantza Taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin batera, Plazara Dantzara erromeria eskainiko du. Eta 13:15ean banatuko dituzte azokako, pintxo lehiaketako eta kartel lehiaketako sariak.

Bestetik, Ernesto Etxabe Aranzibia eibartarraren *Farola* izeneko lanak irabazi du *San Andresak Eibarren* kartel lehiaketa, eta hori erabiliko dute aurtengo sanandresak iragartzeko. Horrez gain, haurren artean Ane Plazaola (11-14 urte) eta Milena Alberdi (10 urtera arte) saritu ditu epaimahaiak.

Sortzaileen Azoka eta kontzertuak Jaixak Herrixak Herrixandakoren eskutik

Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) jai batzordeak ere egitarau berezia prestatu du azaroaren 28rako, zapaturako. Eguneko hitzordu nagusietako bat Sortzaileen Azoka izango da: 12:00etan hasiko da Untzaga plazan, eta hainbat sortzaile eta artisauk hartuko dute parte: Okelerre, Aurelia Clay, Hebra y Revés, Anika Nahiak, Gigil, Bi ta Piku, Idoire, Re-nona, Etiketa Beltza, Goiargi, Xume, Chic&Txik, Scrapeando Un Poco Deli, Urraca eta El dedal de Nika izango dira bertan,besteak beste, baita Depor, Ongizate, Kosmetika Naturala eta Artiz estudioa ere. Azokaren hasieran, *marianitada* egingo da, Marasmia talde feministak antolatuta.

Arratsaldean, 19:30ean, Latuna Bando txarangak hartuko du lekukoa. Ondoren, Alarma Morea eta Aingura taldeek kontzertuak eskainiko dituzte eta, ondoren, txosnetako musikarekin jarraituko du jaiak, karpan, goizeko lauak arte.

Jai batzordeak auzolanean eraikitzeko gonbita egin die eibartarrei, eta jaietan parte hartzera eta antolakuntzan laguntzera animatu ditu. Era berean, inolako erasorik ez dutela onartuko adierazi dute, eta denon artean espazio seguruak eraikitzearen alde egin dute.



San Andres Sari Nagusiko XXXII. Bakailao Lehiaketa domekan jokatuko da Untzagan, izena eman duten 45 bikoteen artean



Aurreko zapatuan jokatu zen Eskola arteko bakailao txapelketa, Errebal Plazan. EIBARKO UDALA



Santa Zezilia serenata egingo du Musika Bandak zapatuan

S.H. Azaroaren 22an Santa Zezilia musikarien patroiaren eguna ospatzen dela eta, musikaz betetako asteburua izango da hau eta, urtero bezala, Eibarko Musika Bandak serenata egingo du zapatu gauerdian. Untzagan hasiko dute kalejira, eta kalez kale ibiliko dira kantuan, herritarrekin batera. Horretarako, kantu-paperak banatu dituzte Trinkete, Portalea, Coliseo eta Ongi Etorri tabernan. Eta domeka eguerdian, berriz, Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia emango du, 12:30ean Coliseon. Bertan, Cecilia de Montserrat Campa Ansó biolontxelo-jotzailea arituko da, bakarlari gisa.



Koro Parrokialak domekako mezan abestuko du

S.H. Eibarko Koro Parrokialak emanaldia egingo du domekan, Santa Zezilia egunean, Karmengo Amaren elizan ospatuko den 12:00etako mezan. Adierazi digutenez, "bertan arituko gara kantuan, gure zaindaria den Santa Zezilia eguna ospatzeko eta, bide batez, hil diren abesbatzako kideak gogoratuko ditugu, bereziki koruko kide izan zen Aitor Errasti, eta aurten hil den Maite Uribarri bere emaztea".



Eibarko ikertzaile gazteekin hasi da 'Zientzia-zubiak'

S.H. UEUk, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitatea eta Berrikuntza Sailaren laguntzarekin, *Zientzia-zubiak* ekimena garatuko du, *ikerl(h)ari* ildoaren baitan, eta Eibarren egin du lehen saioa, martitzenean. Bideo-podcast gisara zabaltzeko grabatu zuten saioan hiru ikertzaile eibartar bildu zituzten: Mikel Albizuri Gomez (Biomedikuntzan doktoregaia), Izaro Fernandez Iriondo (Ingeniaritza Informatikoan doktorea) eta Nora Santos Loyola (Geologian doktoregaia). Horrelako beste bi saio egingo dituzte datorren astean: azaroaren 24an (martitzena) Gernika-Lumon; eta azaroaren 27an (barixakua), Laudion. Saio guztiak UEUren webgunean ipiniko dituzte ikusgai.



Domekan itxiko dute Eibarko Liburu eta Disko Azoka

S.H. Eibarko Liburu eta Disko Azoka domekara arte egongo da zabalik, Untzagan. Edizio honetan hamabost liburu-denda eta argitaletxeren postuak daude eta, liburuak erosteko aukeraz gain, *Gerrako literatura: 1936-2026* erakusketa ikus daiteke. Goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:30era zabalduko dute.



Bederatzi abesbatza batuko ditu ‘Eibar Kantuz’ kontzertuak

S.H. Eibarko bederatzi abesbatzek bat egingo dute Coliseo antzokian, ‘Eibar Kantuz: cantar para celebrar’ kontzertuan. Eibarko Musika Eskolak antolatu du, herriko koruak egun berean eta agertoki berean elkartzeko asmoz. Antolatzaileen esanetan, guztira, 200 abeslari inguru igaroko dira eszenatokitik. Irene Hernando izango da aurkezlea, eta emanaldia 19:30ean hasiko da.

Eibarren abesteko zaletasuna handia da, eta gaur egun hainbat taldek jarduten dute horretan. Hauek dira kontzertuan parte hartuko duten abesbatzak: Jubiletxe Untzaga, San Andres parrokiako abesbatza, Debabarreneko Orfeoia, EKOS abesbatza, Eibarko Koro Gaztea, JBG Korua, Koralito Ipurua, Jubiletxe Beheko Tokia, eta Kaleetan Kantuz taldea. Sarrerak bost euro balio du.



Durangaldeko artisten erakusketa berria Topalekun

S.H. Gaur arratsaldean inauguratuko dute Durangaldeko Artisten Elkartearen erakusketa Topalekun, Eibarko Artisten Elkartearen eskutik. Azaroaren 29ra arte egunero zabalduko dute, astelehenetik barixakura, 19:00etatik 21:00etara.



Txistulariek kalejira egingo dute Santa Zezilia egunean

S.H. Usartza Txistulari Taldeak kalejira egingo du azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean, musikarien zaindariaren omenez. Horrela, goizeko 11:15etik 13:15era bitartean, Eibarko kaleak musikaz girotuko dituzte.

Kalejira Ipuruako Jubilatuen Etxean hasiko dute, eta Romualdo Galdos, Argatxa, Indalezio Ojanguren, Ipurua eta Sostoatarren kaleak zeharkatuko dituzte. Ondoren, Juan Gisasola kaletik jaitsiko dira, Untzaga plazara. Han, Eibarko Musika Eskolako txistu ikasleekin elkartuko dira, eta elkarrekin jarraituko dute kalejira, herrigunean barrena: Bidebarrieta, San Agustin, Errebal eta Untzaga inguruan ibiliko dira eta, ondoren, bazkaria egingo dute, Santa Zezilia eguna ospatzeko.

Maite Arriagaren erakusketa zabalduko dute Egogain egoitzan




S.H. Gaur zortzi, azaroaren 27an (barixakua) inauguratuko dute Maite Arriaga artista eibartarraren pintura erakusketa, Egogain Gerontologia Zentroko kafetegian (4. solairuan), eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte 12:00etan izango den ekitaldira. Animatzen diren guztientzat luntxa egongo da. Egogainetik adierazi digutenez, aurrera begira horrelako beste jarduera batzuk antolatzeko asmoa daukate: “Erakusketa bat edo beste ekitaldiren bat antolatu nahi dutenentzat ateak zabalik dauzkagu, horretarako tokia badaukagu eta”.

SUDOKUA

ERRAZAGOA

		4			9			3
2			8			4		
	7		2				5	
		7			2		9	
		3	9		6	2		
	4		5			3		
	2				8		1	
		1			5			2
5			6			7		




ZAILAGOA

		1		5	8		3	
9	7							
8	4		6				2	
					5		1	4
			3		6			
3	1		8					
	3				4		6	1
							8	9
	8		2	6		5		

LETRA-ZOPA

A	F	O	N	S	A	R	R	A	H	E
M	S	S	M	A	R	E	A	K	T	B
H	P	I	G	O	L	A	T	U	A	K
A	R	R	A	N	T	Z	A	L	E	A
R	U	A	K	L	H	U	K	K	A	Z
E	D	K	L	E	N	D	H	R	M	R
A	K	A	X	G	A	E	I	Z	U	K
I	T	S	A	S	A	R	G	I	A	K
P	M	P	O	R	T	U	A	P	G	D
I	T	S	A	S	O	N	T	Z	I	A
K	A	H	O	N	D	A	R	T	Z	A

OLATUAK
HAREA
ARRANTZALEA
ALGA
AMUA
HONDARTZA
ITSASONTZIA
MAREAK
ITSASARGIA
PORTUA



Azaroak 20 / Azaroak 26

BARIXAKUA 20

LIBURU AZOKA
11:00/14:00 eta **17:00/ 20:30** Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzaga.

HONDAKINAK PREBENITZEKO ASTEA
16:30/19:00 Informazio-gunea: hondakinak eta birziklapena Eibarren. Haurrentzako tailerrak (3-12 urte): "Orain ez da zaborra!". Untzaga.

ZINE-FORUMA
17:00 Bideo-forum feminista, Pagatxa emakume elkartearen eskutik: "Una cuestión de género". Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

ANTZERKIA
19:00 "43°13'44"N" (Olatz Gorrotxategi). Ikuskizuna eta gero solasaldia egingo da. Euskaraz. Coliseo.

KOMEDIA FEST
20:30 "Divorciarse a los 40" umorezko ikuskizuna, Diego Arjonaren eskutik. Uni Eibar Ermua.

ZAPATUA 21

LIBURU AZOKA
11:00/14:00 eta **17:00/ 20:30** Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzaga.

TXISTORRA EGUNA
11:30/21:00 XII. Txistorra Eguna, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Untzaga.

KAFE-TERTULIA
12:00 "Hau ez da gure bakea", Marasmia eta Matraka talde feministen eskutik. Sarrera librea. Arrate Kultur Elkartea.

MUSIKA
19:30 "Eibar kantuz", Eibarko koruen kontzertua. 5 euro. Coliseo.

SERENATA
00:00 Santa Zezilia serenata, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Untzagatik abiatuta.

DOMEKA 22

IRTEERA DIDAKTIKOA
10:00 "Eukaliptaditik bertako basora" irteera, Eibarko Baso Biziak eta Lurgaia Fundazioaren eskutik. Izen-ematea beharrezkoa (eibarkobasobiziak@gmail.com). Txontako aparkalekutik abiatuta.

HONDAKINAK PREBENITZEKO ASTEA
10:30/13:00 Auzoetako detektibeak: Let's Clean Up Eibar. Untzagatik abiatuta.

LIBURU AZOKA
11:00/14:00 eta **17:00/ 20:30** Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Untzaga.

SANANDRESAK
11:00 XXXII. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria". Untzaga.

BISITA GIDATUA
11:00/14:00 Gerrako frontéko bisita gidatua, euskaraz. Gerra Zibilaren Interpretazio Zentrotik abiatuta (Arrate).

MUSIKA
11:15/13:15 Santa Zezilia kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eta txistu ikasleen eskutik. Ipuruatik hasita.

HITZALDIAK
11:30/12:30 "Aita figura bortitz batekin bizitzeak osasunean dituen ondorioak, jaio aurreko etapatik", Lola Aguilar Redorta pediatraren eskutik. **13:00/14:00** Genero-indarkeria bikarioaren eta instituzionalaren biktima diren haur eta nerabeak", Maria Villalobos Gil Berdintasun teknikariaren eskutik. Sarrera librea. Ipuruako Merkatu Plaza.

MONOLOGOA
12:00 "No sólo duelen los golpes", Pamela Palencianoren eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera librea. Andretxea.

MUSIKA
12:30 Santa Zezilia kontzertua: Eibarko Musika Banda eta Cecilia de Montserrat C. A. bakarlaria (biolontxeloa). Dohainik (gonbidapenarekin). Coliseo.

KOMEDIA FEST
19:00 "Eureka" umorezko ikuskizuna, Mikel Bermejoren eskutik. Coliseo.

ASTELEHENA 23

MAHAI-INFORMATIBOA
18:30/20:00 Beti Eibar aziodun-elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroaren ataria.

MARTITZENA 24

DOKUMENTALA
18:00 "Buna. Isiltasunaren indarra" dokumentala eta solasaldia, Egoaiziaren eskutik. Elebidun. Sarrera librea. Andretxea.

MAHAI-INFORMATIBOA
18:30/20:00 Beti Eibar aziodun-elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroaren ataria.

EGUAZTENA 25

AZAROAK 25
11:30 "Indarkeria Matxistaren aurkako matazak ehuntzen" ekintza kolektiboa, Altzoa Eibarko emakume alargunen elkartearen eskutik. 13:00 Herritarren elkarretaratzea. Untzaga.

ZINEA
19:00 "Ombuaren itzala" (Patxi Bisquert). Euskaraz. 3 euro. Coliseo.

EGUENA 26

ODOL-EMATEA
16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatu etxea.

GABONAK
18:00 Gabonetako argiak pizteko ekitaldia. Errebal.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 29ra arte
"BUNA: Etiopiako emakumeen ahotsak eta erresilientziak" argazki-erakusketa. Andretxea.

Azaroaren 29ra arte
Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketa. Saritutako argazkiak eta edizio honetako parte-hartzaileen selekzioa. Portalea (erakusketa aretoa).

Azaroaren 29ra arte
"Materia Emozionala", Vanessa Atecaren pintura-lana. Portalea (erakusketa aretoa).

ZINEA **COLISEO**



"Ruega por nosotras"
DRAMA

2026/Espainia/136'
Zuzendaria: Daniel Monzón
Aktoreak: Zoe Bonafonte, Manuela Calle, Adelfa Calvo
Benetako gertaeretan oinarritua. 70eko hamarkada

1 ARETOA
• **22an:** 17:00, 20:00

ANTZOKIA
• **23an:** 19:30



"Jaleos"
DOKUMENTALA

2026/Espainia/78'
Zuzendaria: Isaki Lacuesta
Aktoreak: C. Tangana, Alba Flores, Soleá Morente-ren ahotsak
Flamenkoari buruzko dokumentala

1 ARETOA
• **23an:** 19:30



"Muguruza 40 tour"
DOKUMENTALA

2026/Euskal Herria/103'
Zuzendaria: Ander Merino, Fermín Muguruza
Aktoreak: Fermin Muguruza, Oihana Barrena
Musikari buruzko dokumentala. Kontzertuak

2 ARETOA
• **22an:** 20:00
• **23an:** 19:30



"Katu kapeladuna"
ANIMAZIOA. KOMEDIA

2026/AEB/105'
Zuzendaria: Alessandro Carloni, Erica Rivinoja
Familia-zinema

2 ARETOA
• **22an:** 17:00





www.etakitto.eus
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak gure etxeko txikixari! 2 urtetxo. Asko asko maite zaittugu, **NIKO**! Famelixa osuan partez.



Zorionak **JOSEAN**! Astelehenian urtiak beteko dozuz eta. Segi betiko moduan, Amañako jaixak prestatzeko biharrian, barriz ospatzeko desiatzen gaoz eta.



Zorionak **OIER**! Zure lehenengo urtebetzia ospatuko dogu bixar! Izugarri maite zaittugu, txiki!



Zorionak **AMETS**! Astelehenian 9 urte beteko dozuz eta. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Asko maite zaittugu. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak **IRATI**! Gure etxeko txikixak 3 urtetxo bete zittuan aurreko astian. Segi gure bizitza alaitzen, asko maite zaittugu! Danel, aita eta ama.



Zorionak **MELLIS!** (Nile eta Jule), azaroaren 19xan 3 urte bete dozuez. Besarkada estu bat famelixa guztiaren partez. Musu haundi bat Marenen partez.

Xabier Zubizarreta Muguruza

2026/11/19



"MAITE ZAITUGU"

– ETXEKOAK –

Jose Luis Ramon De la Vega

1. URTEURRENA
2025/11/18



BETI EGONGO ZARA GUREKIN, MAITE ZAITUGU

– ETXEKOAK –

Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Gizonezko langile eta arduratsuak Eibarren logela alokatuko luke, epe luzerako egonaldirako. 722 565 179 (Vladi).
- Neska bat logela bila dabil alokairuan hartzeko Eibarren edo Elgoibarren. 640540638.

4. LAN BILA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, pegorak garbitzeko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. 652020464.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak eta ofizinak garbitzeko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. 642712610.
- Emakumea eskaintzen da adinekoak orduka zaintzeko, garbiketa-lanak egiteko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. Esperientzia. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, astean zehar, zein asteburuetan. Baita oporretan edota ospitaletan ere. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka, etxeetan eta ospitaletan, baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaitzeko, interna edo orduka. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 631483249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, eta dendari edo zerbitzari bezala lan egiteko. Esperientziarekin. 601500665.
- Emakumea eskaintzen da goiz eta arratsaldez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 604 12 01 04.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzako peoi bezala, ostalaritzan sukaldeko laguntzaile bezala, garbiketa lanetarako edota autoen garbiketarako. 642986250.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, lanaldi osoa eta asteburuak barne. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632292662.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa eta apal-betetzaile lanetarako ere. Esperientzia eta ziurtagiriarekin. 631462540.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Esperientziarekin. 641969140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa edo zerbitzari lanetarako ere. 607826589.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 614567818.
- Emakumea eskaintzen da, esperientziarekin, pertsona nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaindu, zein garbiketa eta etxeko lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 641 78 12 29

4.2. Langile bila

- Eskulan dendak saltzailea behar du Bilbon, Gabon azokan lan egiteko. Telf 943204000.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Gaztetxoentzako logela osoa salgai: ohea, izkinako armairua, ikasteko mahaia eta gehiago. Oso egoera onean. 652722538.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA





OKULISTAK



PODOLOGOAK





PSIKOLOGOAK







TERAPIA NATURALAK



BISTA·EDER

Hortz Klinika · Clínica Dental



IRRIBARRE BAT DA GUZTIAREN **HASIERA**



Bista-Eder Kalea, 19 behea
tlf/whatsapp 943 70 00 82